



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

GIPUZKOAKO
INGENIARITZA
ESKOLA
ESCUELA
DE INGENIERÍA
DE GIPUZKOA



MUGIKORTASUN PROGRAMAK IKASLEAREN ESKULIBURUA

**Gipuzkoako Ingeniaritza
Eskola (Eibarko atala)**

www.ehu.eus

PLAZA EMAN DIDATE. ZER EGIN BEHAR DUT ORAIN?	1
Informatu zaitez.....	1
Koordinatzailearekin hitzarmen akademikoa adostu.....	1
Prestatu dokumentazioa eta epe barruan aurkeztu	2
Mugikortasun programetan parte hartzeko baldintzak	2
Egonaldia luzatzeko edo laburtzeko eskaera.....	3
Plazari uko egitea	3
LERANSKINA	4
Ikaslearen Betebeharrak.....	4
DESTINOAN ONARTUA IZAN NAIZ. ZER EGIN BEHAR DUT JOAN AURRETIK?	6
Bisa.....	6
Matrikula	6
Mediku Asegurua	6
MAECeko bidaiarien erregistroa.....	7
Diru Laguntzak.....	7
DESTINOKO UNIBERTSITATEAN NAGO. ZER URRATS EGIN BEHAR DITUT?	8
Egonaldi hasierako ziurtagiria.....	8
Behin-betiko hitzarmen akademikoa / aldaketak.....	8
Etengabeko ebaluazioari uko egitea	8
Egonaldia luzatu edo mozteko eskaera.....	8
Deialdiak.....	9
NIRE EGONALDIA AMAITZEAR DAGO. ETA ORAIN ZER?	10
Egonaldiaren amaiera-ziurtagiria	10
Inkesta.....	10
Notak/baliozkotzea	10
Gradu Amaierako Lana	10
Ez betetzeak	10
LABURPENA	12

PLAZA EMAN DIDATE. ZER EGIN BEHAR DUT ORAIN?

Informatu zaitez

- Zer egin behar dut destinoko unibertsitatean onarpena eskatzeko?

Helmugako unibertsitate bakoitzak prozedura desberdina izan dezake truke-ikasleen onarpena izapidetzeko. Kontsultatu nola kudeatu behar duzun zure onarpena

- Erasmus+: Kontsulta ezazu destinoko Unibertsitatearen web orrialdea. Mugikortasun koordinatzaileak zure izendapena bidaliko du helburuko unibertsitatara, eta bertatik jarriko dira kontaktuan zurekin.
- SICUE: Ikaslea arduratuko da.
- Latinoamerika: Nazioarteko Harremanetarako webgunea kontsultatu <https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/latinoamerikako-unibertsitateak>
- Beste Norakoak: Nazioarteko Harremanetarako webgunea kontsultatu <https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/bestenorakoak-unibertsitateak>

- Hitz egin aurreko ikasturteetan bertan egon diren ikasleekin / Jarri harremanetan zure helmugara joango diren ikasleekin

Esleitu zaizuen helmugan egon diren ikasleek azalduko dizute ondoen nola egin behar dituzun beharrezko izapideak, zein den zure helmugara iristeko modurik egokiena edo ostatu hartzeko lekurik egokiena, zein irakasgai gomendatzen dizuten aukeratzea, etab.

Galdetu koordinatzaileari eta ea aurreko ikasturteetan Eskolako ikaslerik egon den helmuga horretan, haiekin harremanetan jarri ahal izango zara.

Bestalde, ikasle gehiago baldin badoaz zure helmugara, gure eskolakoak edo UPV/EHUko beste fakultate batekoak, komeni da haiekin harremanetan jartzea. Joan aurretik, hainbat izapide egin beharko dituzu, eta, ziurrenik, lagungarria izango da beste ikaskideekin partekatu ahal izatea.

Gainera, UPV/EHUren Nazioarteko Harremanen webgunean kontsulta dezakezu:

Zure destino berera ea beste inor badoan. Ikus lotura honetan:

<https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/erasmus-latinoamerica-y-otros-destinos-2024-2025/seleccion-y-adjudicacion>

Esteka horietan NANA baino ez da ageri. Zure helmugara doan norbaitekin harremanetan jarri nahi baduzu, eskatu Nazioarteko Harremanetarako Zuzendariordetzari.

Facebookeko taldeetan, zure helmugara doazen edo orain bertan dauden ikasleekin harremanetan jartzeko aukera izango duzu: <https://www.ehu.eus/es/web/nazioarteko-harremanak/facebook-taldeak>

Koordinatzailearekin hitzarmen akademikoa adostu

Zer da hitzarmen akademikoa?

Destinoan egingo dituzun irakasgaiak eta GIE-Eibarren baliozkotuko zaizkizunak jasotzen duen akordioa da.

Hitzarmena adosteko, Txisko Asensio Nazioarteko Harremanen koordinatzailearekin bilduko zara.

Bilerara joan aurretik, zure proposamena aztertu beharko duzu, ikasgaiei buruzko informazioa helmugako unibertsitatearen webgunean bilduz.

Bileraren egunean, zure konpromiso-proposamena jasotzen duen taula bat eta zure proposamena justifikatzen duen idazki bat prestatu beharko dituzu. Komenigarria da aukera bat baino gehiago izatea, lehenengo proposamena onartzen ez bada beste aukera bat izateko.

HITZARMEN AKADEMIKOA. PROPOSAMENA

Helmugako unib. Egingo diren irakasgaiak Asignaturas a cursar en univ. extranjera			Baliozkotu nahi diren UPV/EHUko irakasgaiak Asignaturas de la UPV/EHU a reconocer			
Kodea Cod.	Irakasgaiaren izena Denominación asignatura	Kreditu. Cred.	Kodea Cod.	Irakasgaiaren izena Denominación asignatura	Kreditu. Cred.	Maila Curso

Hitzarmen akademikoa adosten duzunean:

Erasmus+: ikasleak grabatuko du OLA (Online Learning Agreement) EWP EHU Dashboard plataforman.
<https://app.ehu.eus/identity-manager/login>

Latinoamerika / Beste Norakoak: guk grabatuko dugu GAURen.

Zure egonaldia amaitzen denean, helmugan egin duzuna aitortu ahal izateko, konpromisoa GAURn egon behar da, zure matrikulari eta espedienteari lotuta.

Prestatu dokumentazioa eta epe barruan aurkeztu

Hainbat dokumentu bidali beharko dituzu helmugako unibertsitatera. Horietakoren bat EIG-Eibarreko koordinatzaileak sinatu beharko du.

Bidali beharreko dokumentuen artean honako hauek egon ohi dira:

- Behin-behineko konpromiso akademikoa (koordinatzailearekin adostutakoa)
- Espediente akademikoa/Transcript of Records (eskatu idazkaritzan, eta adierazi mugikortasun-programetarako dela)
- Trukeko ikaslea izatearen ziurtagiria (GAURetik jaitsi behar duzu)
- NANaren edo pasaportearen fotokopia (Egiaztatu indarrean dagoela!)
- Istripu eta Aberriratze Asegurua: <https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/istripu-eta-aberriratze-asegurua>
-

Mugikortasun programetan parte hartzeko baldintzak

Mugikortasun programetan parte hartzeko baldintzetako bat 1. mailako irakasgai guztiak gainditu izana da.

Uztailean 1. mailako ikasgairen bat gainditu gabe baduzu, mugikortasunari uko egin beharko diozu.

Egonaldia luzatzeko edo laburtzeko eskaera

Egonaldiaren iraupen aldaketa ez da automatikoa. (baldintza orokorrak: <https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/egonaldiaren-luzapena>)

Egokitu zaizun plazaren iraupena aldatu nahi baduzu, luzatu edo moztuz, lehenbailehen jakinarazi guri korreo elektronikoko bat bidaliz (gie-eibar.international@ehu.eus) eta zure eskaera arrazoituz.

Zure eskaera aztertuta aldaketa egiten saiatuko gara, beti ere UPV/EHUko Nazioarteko harremanetako zuzendaritza eta destinoko unibertsitateak aldaketa onartzen badute.

Kontutan hartu, jasoko duzun dirulaguntza egokitu zaizun egonaldiaren iraupenaren arabera dela. Lehen lauhilekoan joatea egokitu baldin bazaizu eta egonaldia luzatzea erabakitzen baduzu, bigarren lauhilerako ez duzu diru-laguntzarik jasoko. Aldiz ikasturte osorako joatea egokitu bazaizu baina egonaldia moztea erabakitzen baduzu, jasoko duzun diru-laguntza benetako egonaldiaren arabera izango da. Iraupena erreala kalkulatzeko, egonaldi hasiera eta amaierako ziurtagiriak erabiliko dira.

SICUE programaren kasuan, ikus SICUE programako "DEIALDIA" dokumentuan EGONALDIAREN IRAUPENA puntuan jasotakoa.

Plazari uko egitea

Edozein arrazoigatik mugikortasunari uko egingo badizou, GAUREn "uko egin" botoia sakatu eta guri korreo elektronikoz komunikatu behar diguzu (gie-eibar.international@ehu.eus).

Uko egitea ezarritako epeetatik kanpo adierazten baduzu, Errektoreordetzak penalizazioa aplikatuko dizu eta ezingo duzu mugikortasun eskaera berririk egin.

I.ERANSKINA

Ikaslearen Betebeharrak

MUGIKORTASUN PROGRAMAK 2024-2025. IKASLEAREN BETEBEHARRAK

AUTOMATRIKULA: uztailean 2024-25 ikasturtean egingo dituzun irakasgai guztien matrikula egin behar duzu. Bai hemen egingo dituzun irakasgaiena baita Hitzarmen Akademikoan jasotakoena ere. Gogoan izan gehienez 90 kreditutara matrikulatu zaitezke.

ETENGABEKO EBALUAZIOARI UKO EGITEA: hitzarmen akademikoan jasota ez dagoen irakasgairen batean matrikulatzen bazara 2024-2025 ikasturtean, eta ebaluazio jarraitua egitea posible ez baduzu kanpoan zaudelako, begiratu [Ikasleen Ebaluaziorako Arautegia \(12. Artikulua.- Deialdiari uko egitea\)](#). Kontsulta ezazu dagokion irakasgaiaren irakaslearekin.

BIDAIATU AURRETIK:

- **HITZARMEN AKADEMIKOA:** erregistratuta egon beharko du GAURen (EWPn Erasmus programakoen kasuan), 2024/25eko automatrikularako dagokizun zita baino lehen.
- **MEDIKU ASEGURUA:** Atzerrira joan baino lehen, istripu eta aberriratzeko-aseguru **gehigarri** bat egin behar duzu, aurreikusitako egonaldi OSOAN gerta litezkeen gorabeherak estaltzeko. Aseguruaren ordainagiriaren kopia aurrez aurkeztea derrigorrezkoa da, Koordinatzaileak zuen Hitzarmen Akademikoa sinatzeko. Bidali kopia gie-eibar.international@ehu.eus helbidera.
- **Diru-laguntzen hitzarmena** sinatuta bidali behar duzu movilidad.internacional@ehu.eus helbidera (GAUR plataformako profileen dago dokumentua).
- Galdetu helmugako koordinatzaileari zein dokumentazio aurkeztu behar duzun iristen zarenean.
- **BISATUA:** beharrezkoa den kasuetan, destinoko herrialdeak hala eskatzeko badu, bisatua lortzeko izapideak egin beharko dituzu.
- Europa bazoaz (Erasmus+ programa): Gizarte Segurantzaren Europako Osasun Txartela eguneratu (eta aseguruarekin batera koordinatzaileari bidali). Hizkuntza test bat egin beharko duzu OLS plataforman (Online Linguistic Support) mugikortasunaren aurretik.
- **MAEC bidaiarien erregistroa:** Nazioarteko Harremanetako bulegoak MAEC bidaiarien erregistroan izena ematea gomendatzen du.

HELMUGARA IRISTEN ZARENEAN:

- **HASIERAKO ZIURTAGIRIA:** GAURetik inprimatu. Sinatuta eta zigiluarekin bidali Leioako Nazioarteko Harremanen Bulegora (movilidad.internacional@ehu.eus), helmugako unibertsitateari iristen zarenetik **hilabete igaro baino lehen**.
- Helmugako koordinatzailearekin bilduko zara Hitzarmen Akademikoa berrikusteko. Sinatzen dizunean bidali kopia gie-eibar.international@ehu.eus helbidera.
- HITZARMEN AKADEMIKOAN ALDAKETAK:** Iristen zarenetik **hilabete** daukazu aldaketak proposatzeko. **Aldaketak arrazoitu eta justifikatu** beharko dituzu. Proposamenarekin batera **aldaketa dokumentua** eta **irakasgai berriaren programa** bidali behar duzu. Bi koordinatzaileen onarpena/sinadura (Eskolako/helmugakoa) behar duzu.

EGONALDIA AMAITZEAN:

- **BUKAERAKO ZIURTAGIRIA:** GAURetik inprimatu. Sinatuta eta zigiluarekin bidali Leioako Nazioarteko Harremanen Bulegora movilidad.internacional@ehu.eus, egonaldia bukatzen duzunean **hilabete igaro baino lehen**. (dokumentu hau jaso ez bada, ezin da ikasgaien onarpena tramitatu).
- **AZKEN TXOSTENA:** ERASMUS+ programako partaideek korreo elektronikoa bat jasoko dute azken txostena osatu dezaten.
- **GIEko balorazio inkesta:** egonaldi amaieran lotura bidaliko dizugu, inkesta bete dezazun.
- **NOTAK/ONARPENAK:** hitzarmen akademikoan jasotakoaren arabera irakasgaien eta Gradu Amaierako Lanaren onarpena gauzatu ahal izateko, helmugako unibertsitateak zuen notak helarazi behar dizkigu. Eskatu lehenbailehen bidali ditzaten.

BETEBEHAR HAUEK INOLAKO AZALPENIK GABE BETE EZEAN, HAINBAT ONDORIO ETOR LITEZKE: BEKA EZEZTATZEA, IKASKETA KONTRATUA ETETEA, FINANTZA HITZARMENA EZEZTATZEA (ETA ONDORIOZ, AURRETIK JASOTAKO FINANTZA-LAGUNTZA GUZTIA ITZULTZEKO DERRIGORTASUNA) ETA ERREKTOREORDEZTATIK GERORA SUSTATUTAKO MUGIKORTASUN PROGRAMATAKO HAUTAPEN PROZESUETATIK KANPO GERATZEA.

NAZIOARTEKO HARREMANETARAKO BULEGOAK IKASLE@EHU.EUS KONTUA ERABILIKO DU NAZIOARTEKO MUGIKORTASUN PROGRAMEKIN ZERIKUSIA DUEN EDOZER KOMUNIKATZEKO. BERAZ, OHITU ZAITEZ KONTU HORI ERABILTZEN.

Nire betebeharrak irakurri ditut, ezagutzen ditut eta guztiak betetzeko konpromezua gain hartzen dut

Baimena ematen dut, ondorengo ikasturtetan destino berera doan ikasleren batek nirekin kontaktatu nahiko balu, nire posta elektronikoa berari emateko: _____@_____

NAN zb:

Izen Abizenak:

Sinadura

DESTINOAN ONARTUA IZAN NAIZ. ZER EGIN BEHAR DUT JOAN AURRETIK?

Bisa

Helmuga jakin batzuetara joateko, bisa izapidetu beharko duzu. Horretarako, seguruenik, helmugako unibertsitatearen onarpen-gutuna beharko duzu.

Kontsultatu zure bisa nola kudeatu behar duzun esteka hauetan:

- [UPV/EHU-AL Programa: https://www.ehu.es/eu/web/nazioarteko-harremanak/bisadoak-lortzeko-informazioa](https://www.ehu.es/eu/web/nazioarteko-harremanak/bisadoak-lortzeko-informazioa)
- [Beste Norakoak programa: https://www.ehu.es/es/web/nazioarteko-harremanak/bestenorakoak-bisadoak-lortzeko-informazioa](https://www.ehu.es/es/web/nazioarteko-harremanak/bestenorakoak-bisadoak-lortzeko-informazioa)

Matrikula

Mugikortasuna egiteko ezinbestekoa da UPV/EHUUn matrikulatzea. Ezin duzu atzerrira bidaiatu matrikulatuta egon gabe.

Uztailean, 2024-25 ikasturtean egingo dituzun irakasgai guztien matrikula egingo duzu. Bai GIE-Eibarren egingo dituzun ikasgaiena, bai zure hitzarmen akademikoak jasotzen dituenena.

Hitzarmen akademikoa GAURen grabatuta daukazunez, konpromisoko irakasgaiak automatikoki hautatuta agertuko zaizkizu matrikula egitera zoazenean. Ikasgai horiez gain beste batzuk ere egin behar badituzu EIG-Eibarren, zure matrikulari gehitu beharko dizkiozu.

Ikasleen nazioarteko mugikortasun programei buruzko arautegiak dio, **"7.7.- Nazioarteko mugikortasun programetan parte hartzen duten ikasleek ez dute nahitaez matrikulatu beharko gainditu gabeko irakasgaietan, beste batzuetan lehenengoz matrikulatzeko baldintza gisa."**

Gogoratu gehienez 90 kreditutan matrikula zaitezkeela. Muga hori gainditzen baduzu, jar zaitez harremanetan GIE—Eibarko idazkaritzarekin.

Mediku Asegurua

- [Istripu eta herriratze aseguruaren kontratazioa](#)

Batzuetan, onarpen eskaerarekin batera aseguruaren kopia bidaltzen eskatuko dizute. Beste batzuetan, berriz, nahikoa da joan aurretik kontratazea. Nolanahi ere, atzerrira joan aurretik, istripu eta aberriratzearen aseguru medikoaren egiaztagiria bidali behar diozu EIG-Eibar mugikortasun programen koordinatzaileari (gie-eibar.international@ehu.eus).

Garrantzitsua: aseguruaren entregatu arte ez dira akordio akademikoak sinatuko.

Ziurtatu aseguruaren indarrean egongo dela zure egonaldi osoan. Izapide hori betetzen ez bada, programan baja eman ahal izango zaizu.

Edozein aseguru partikular kontrata dezakezu. EHU-Ibilik, adibidez, aukera interesgarriak eskaintzen dizkie UPV/EHUko ikasleei:

<https://www.ehu.es/eu/web/nazioarteko-harremanak/istripu-eta-aberriratze-asegurua>

- Europako Osasun Txartela

Erasmus+ programan parte hartzen baduzu, Europako Osasun Txartela izapidetu behar duzu (galdetu Gizarte Segurantzaren bulegoan). Bidali honen kopia aseguruarekin batera: gie-eibar.international@ehu.eus

- Erantzunkizun zibileko aseguria

Helburu jakin batzuetan, erantzukizun zibileko aseguru bat ere eskatuko dizute. UPV/EHUK ikasle guztiak estaltzen dituen aseguria du. Behar baduzu, eskatu kopia bat mugikortasun-programen koordinatzaileari.

MAECeko bidaiarien erregistroa

MAECeko bidaiarien erregistroa Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak MAECeko bidaiarien erregistroan izena ematea gomendatzen du.”

<https://www.exteriores.gob.es/es/ServiciosAlCiudadano/Paginas/Registro-de-viajeros.aspx>

Diru Laguntzak

Laguntza ekonomikoak Euskara, Kultura eta Nazioartekotzeko Errektoreordetzak kudeatzen ditu. Informazio eguneratua aurki dezakezu esteka honetan:

<https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/dirulaguntzak>

DESTINOKO UNIBERTSITATEAN NAGO. ZER URRATS EGIN BEHAR DITUT?

Egonaldi hasierako ziurtagiria

Hasierako ziurtagiriaren txantiloia GAURetik deskarga dezakezu. Inprimatu eta eskatu helmugako unibertsitateari sinatzeko eta zigilatzeke.

Gero eskaneatu eta UPV/EHUko Nazioarteko Harremanetarako Bulegora bidali:

- Nazioarteko Mugikortasuna programak: movilidad.internacional@ehu.eus.
- SICUE: sicue@ehu.eus

Dokumentu hau bidaltzea ezinbestekoa da dirulaguntza jasotzeko. Hilabeteko epea duzu helbidera iristen zarenetik bidaltzeko.

Behin-betiko hitzarmen akademikoa / aldaketak

Zure helmugara iristen zarenean konpromiso akademikoan aldaketak egin behar badituzu, hilabete daukazu egonaldia hasten duzuetik koordinatzaileari (gie-eibar.international@ehu.eus) proposamen justifikatu berria bidaltzeko, horretarako konpromiso-proposamena egiteko erabili zenuen taula bera erabiliz.

Koordinatzaileak proposamen berria onartzen badu, aldaketak sartuko ditugu GAURn (Erasmus+ programaren kasuan zuk sartu behar dituzu aldaketak EWPn), konpromiso akademiko berria inprimatuko dugu eta bidaliko dizugu, zuk eta helmugako unibertsitateak sina dezazun (sinadura eta zigilua). Sinadura eta zigilu guztiak (helmugako unibertsitatea/ikaslea) dituen dokumentua duzunean, koordinatzaileari bidali beharko diozu eskaneatutako dokumentua, sina dezan.

GAURen grabatutako konpromisoa zuzena dela egiaztatu behar duzu, helmugan egindako ikasketak aitortzeko erreferentzia baita.

Etengabeko ebaluazioari uko egitea

Hitzarmen akademikoan jasota ez dagoen irakasgairen batean matrikulatuta baldin bazaude GIEn, eta ebaluazio jarraitua egitea posible ez baduzu kanpoan zaudelako, kontsulta ezazu irakasgai bakoitzaren Irakasgai Gida eta jarri harremanetan dagokion irakaslearekin, zer egin behar duzun jakiteko.

Gaiari dagokion araudia urtetik urtera alda liteke. Kontsulta ezazu:

[Graduko Titulazio Ofizialetako Ikasleen Ebaluaziorako Arautegia.](#)

Egonaldia luzatu edo mozteko eskaera

Egonaldiaren iraupen aldaketa ez da automatikoa. ([baldintza orokorrak](#))

Helmugan zaudenean zure egonaldia murriztu edo handitu nahi baduzu, koordinatzailearen oniritzia behar duzu lehenik eta behin. Zure egoera azaldu behar duzu eta sinatutako egonaldia luzatzeko/murrizteko eskaera bidali behar diguzu.

Hitzarmen akademiko berria proposatu beharko duzu, eta, horretarako, arestian azaldutako aldaketa-prozedura bera erabiliko duzu.

Gainera, egonaldia luzatzen baduzu, aseguruaren indarraldia luzatu izanaren egiaztagiria bidali beharko diguzu (gie-eibar.international@ehu.eus) zure egonaldi osoa estaltzeko.

Deialdiak

Ikasleen nazioarteko mugikortasun programei buruzko arautegiak honako hau dio deialdiei buruz:

“7.8.– Atzerriko unibertsitatean hitzarmenaren barruan sartutako irakasgaien deialdiei dagokienez, unibertsitate horretan irakasgai horietarako eta mugikortasuna egiten den ikasturtean egiten diren deialdietara aurkezteko eskubidea izango du ikasleak.

7.9.– Mugikortasunaren ikasturtean, ikasleak hitzarmenean jasotako irakasgaiak atzerriko unibertsitatean gainditu ez baditu edo deialdietara aurkeztu ez bada, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatean ez du horien azterketa egiteko eskubiderik izango. Edonola ere, ikasleak gainditu ez badu eta egonaldia amaitu ondoren atzerriko unibertsitatearen deialdira aurkeztu nahi badu, urruneko azterketa egin ahal izango du Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatean, baldin eta horretarako baldintzak bideragarriak badira, atzerriko unibertsitateak aukera ematen badu eta dagokion dokumentazioa ematen bazaio ikastegiko nazioarteko mugikortasuneko arduradunari edo haren ordezkoiari. Hori eginez gero, atzerriko unibertsitatearen ardura izango da bai proba prestatzea bai ebaluatzea.

Salbuespen gisa, atzerriko unibertsitatean gainditu ez den irakasgaia Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatean dagokion titulua amaitzeko ikasleari geratzen zaion irakasgai bahraren balioidea bada, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko deialdi batean azterketa egin ahal izango du, betiere irakasgai balioak 12 kreditu baino gehiago ez baditu. Ikasketak amaitzeko irakasgai bakarria kontsideratzeari begira, ez dira kontuan hartutako praktiketako kredituak, gradu amaierako lana, kanpoko praktikak edo ikasketa planetan irakasgai balioide gisa sartutako irakasgaiak.”

(Ikusi [Nazioarteko mugikortasun programei buruzko arautegia](#))

NIRE EGONALDIA AMAITZEAR DAGO. ETA ORAIN ZER?

Egonaldiaren amaiera-ziurtagiria

Deskargatu GAUREn egonaldiaren amaierako ziurtagiriaren txantiloia. Inprimatu eta helmugako unibertsitateak sinatu eta zigilatu ondoren, UPV/EHUko Nazioarteko Harremanetarako Bulegora bidali behar duzu:

- Nazioarteko Mugikortasuna programak: movilidad.internacional@ehu.eus
- SICUE: sicue@ehu.eus

Hilabeteko epea duzu egonaldiaren amaieratik bidaltzeko. Ez baduzu bidaltzen, ezin izango da aitortu atzerrian ikasi duzuna.

Inkesta

- Ikaslearen azken txostena (NHB): amaierako ziurtagiria GAUREn erregistratuta dagoenean, inkesta korreo elektronikoz bidaliko da.
- GIE-Eibarko inkesta: Eskolatik lotura bidaliko dizuegu zuen egonaldiaren balorazioa egin dezazuen. Bi helburu nagusi ditu. Alde batetik, programetan parte hartzen duten ikasleen esperientziaz baliatzea, mugikortasun programa batean parte hartzeko aukera kontsideratzen ari den ikaslea orientatzeko. Bestalde, Eskolako norako eskaintza aztertu eta beste unibertsitateekin indarrean dauden hitzarmenak berrikustea. Noten baliozkotzea tramitatzeko, ezinbestekoa izango da inkesta betetzea.

Notak/baliozkotzea

Hitzarmen akademikoan jasotako irakasgaien eta/edo Gradu Amaierako Lanaren aintzatespena izapidetu ahal izateko, helmugako unibertsitateak zure notak helarazi behar dizkigu. Batzuetan zuei bidaltzen dizkizute zuzenean. Kasu horretan, ekariezaguzue edo helmugako koordinatzaileari esan gie-eibar.internacional@ehu.eus helbide elektronikora bidaltzeko.

Konpromiso akademikoa adostu zenutenean koordinatzailearekin egindako bileran eman zitzaizuen taularen arabera (Eskolako intranetean argitaratuta dagoena) bihurtuko dira kalifikazioak.

Nolanahi ere, notak GAURn grabatu ahal izateko, beharrezkoa izango da egonaldiaren amaierako ziurtagiria ORira bidaltzea eta aurreko puntuan aipatutako inkestak betetzea.

Gradu Amaierako Lana

Zure hitzarmenean Gradu Amaierako Lana agertzen bada, helmugako unibertsitatean egin eta defendatu behar duzu.

Itzultzen zarenean, GRALa pdf formatuan eta hari buruzko informazioan bidaltzeko eskatuko dizugu (izenburua, zuzendariaren izen-abizenak eta defentsa-data).

Ikasgai guztiak gaitututa dituzunean, GRALean matrikulatu ahal izango zara, eta aintzatespena izapidetuko dugu.

Ez betetzeak

UPV/EHUK eskatutako dokumentu eta ziurtagiri guztiak epe barruan aurkeztu behar dituzu. Inprimakiak zure GAUREn profilean aurki ditzakezu.

- Nazioarteko Mugikortasuna programak: movilidad.internacional@ehu.eus.
- SICUE: sicue@ehu.eus

Gainera, helmugako unibertsitatean errendimendu ona duzula egiaztatu beharko duzu, emandako egonaldian gutxienez UPV/EHUn trukerako matrikulatutako kredituen ehuneko berrogeita hamar gaindituz, OLSren hizkuntza-testa egin behar duzu Erasmus+ programan parte hartuz gero, eta IKASLEAREN AZKEN TXOSTENA osatu behar duzu.

Beharrezko dokumentazio guztia UPV/EHUko Nazioarteko Harremanetarako Bulegora bidali duzun ala ez ikus dezakezu GAURen. Zure GAUR profilean kontsulta dezakezu, zure helmuga hautatuz eta XEHETASUNAK atalean sartuz.

Laburbilduz, honako dokumentazio hau bidali beharko duzu:

- ERASMUS+ diru-laguntzen hitzarmena, AL/BN diru-laguntzen hitzarmena, errektoreordetzak AL/BN programarako diru-laguntza baten onuraduna izanez gero.
- Kontratututako aseguruaren kopia
- Egonaldi hasierako ziurtagiria
- Egonaldi amaierako ziurtagiria

Ikasleen betebeharrak justifikaziorik gabe ez betetzeak beka baliogabetzea, ikasketa-kontratua deuseztatzea eta finantza-hitzarmena deuseztatzea ekar dezake, eta, ondorioz, ikasleak finantza-laguntza gisa jaso dituen funtsak itzuli beharko ditu, bai eta errektoreordetzak sustatutako edozein mugikortasun-programatako etorkizuneko hautaketa-prozesuetatik kanpo uztea ere.

UPV/EHUko Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak eta EIG-Eibarreko mugikortasun-programen koordinatzaileak ikasle@ehu.eus kontua erabiliko dute mugikortasun-programekin lotutako komunikazio guztietarako. Erabili kontu hori.

LABURPENA

Plaza eman didate. Zer egin behar dut orain?

Informatu zaitez:

- Kontsultatu nola kudeatu behar duzun destinoan onarpena:
 - o [Erasmus+](#): Helburuko unibertsitatea jarriko da kontaktuan zurekin.
 - o [SICUE](#): Ikaslea arduratuko da.
 - o [Latinoamerika](#): Nazioarteko harremanetarako web gunean begiratu
 - o [Beste Norakoak](#): Nazioarteko harremanetarako web gunean begiratu
- Aurretik destinoan egondako ikasleekin/destino berera doazen ikasleekin kontaktatu

Koordinatzailearekin hitzarmen Akademikoa adostu: Destinoko unibertsitate irakasgaiak aztertu eta hitzarmen proposamen justifikatua koordinatzaileari aurkeztu horretarako prestatutako txantiloian

Ikaslearen betebeharrak: Ikasleen betebeharren dokumentua irakurri, sinatu eta entregatu

Beharrezko dokumentazioa prestatu eta epe barruan entregatu: Behin behineko hitzarmen Akademikoa (koordinatzailearekin adostutakoa) / Espediente Akademikoa (eskatu GIE-Eibarko Idazkaritzani) / Elkartruke ikaslea zarenaren ziurtagiria (GAURen daukazu) / NAN edota pasaportearen kopia (konprobatu indarrean daudela!)/ Istripu eta Aberriratzte-Asegurua / Etab.

Parte-hartze baldintzak bete: Joan aurretik lehenengo maila guztia gaintutua izan behar duzu. Bestela, mugikortasunari uko egin beharko diozu.

Destinoan onartu naute. Joan aurretik zer egin behar dut?

Bisadoak: Destinora joateko bisadoa behar baduzu, kontsulta ezazu nola egin behar duzun:

- [UPV/EHU-AL Programa /// Beste Norakoak programa](#)

Matrikula: Joan aurretik UPV/EHUko matrikula egin. Ikasketak kanpoan egingo dituzun arren, UPV/EHUko ikaslea zara. Ezin duzu atzerrira joan matrikula egin gabe.

Mediku Asegurua

- Medikuntza, istripu eta aberriratzeko aseguria kontratatu eta gie-eibar.international@ehu.eus helbidera bidali ziurtagiria.
- Europara bazoaz, Europako Osasun Txartela egin/eguneratu, eskaneatuta bidali: gie-eibar.international@ehu.eus
- Erantzunkizun Zibileko aseguria eskatzen badizute destinoan, GIE Eibarko mugikortasun koordinatzaileari eskatu

Diru Laguntzak: UPV/EHUko Nazioarteko Harremanetako bulegotik kudeatzen dituzte. Ziurtatu eskaerak epe barruan egiten dituzula: <https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/dirulaguntzak>

Hizkuntza test-a: Erasmus+ programan parte hartzen baduzu, hizkuntza test bat egin beharko duzu OLS plataforman.

Destinoko unibertsitatean nago. Zein pausu jarritu behar ditut?

Egonaldi Hasierako Ziurtagiria: GAURetik jaitsi, destinoko unibertsitateari sinatu eta zigorla jartzeko eskatu eta bidali movilidad.internacional@ehu.eus / sicue@ehu.eus helbidera

Hitzarmen Akademiko definitiboa/ aldaketak: Hitzarmenean aldaketak egin behar badituzu, hilabeteko epean Nazioarteko Harremanetako Zuzendariordeari (gie-eibar.international@ehu.eus) proposamen berri justifikatua bidali behar diozu.

Etengabeko Ebaluazioari uko egitea: Hitzarmenean jasota ez dagoen GIEn matrikulatutako irakasgairen batean, etengabeko ebaluazioa jarraitu ezin baduzu, kanpoan zaudelako, etengabeko ebaluazioari uko egiteko egin beharrekoak gauzatu.

Egonaldia luzatu/mozteko eskaera: Iraupen aldaketa eskatu. Onartzen bada, hitzarmen Akademikoa aldatu eta aseguruaren iraupena luzatu hala badagokio.

Deialdiak: Kontutan hartu hitzarmenean jasotako irakasgai dagokienez, destinoko unibertsitatean ezarritakoak direla deialdiak eta ezin duzula azterketa UPV/EHUen egin.

Nire egonaldia amaitzean dago. Eta orain?

Egonaldi Amaierako Ziurtagiria: GAURetik jaitsi, destinoko unibertsitateari sinatu eta zigorla jartzeko eskatu eta bidali movilidad.internacional@ehu.eus / sicue@ehu.eus helbidera

Inkesta:

- UPV/EHU-ko Nazioarteko Harremanetako bulegoak bidalitako azken txostena bete
- GIEko Nazioarteko Harremanetako zuzendariordetzak bidalitako inkesta bete.

Notak/Baliozkotzea: GIEko Nazioarteko Harremanetako zuzendariordetzak kanpoan egindako irakasgaien baliozkotzea egingo du, noten ziurtagiria jasotzen duenean. Baliozkotzea gauzatzeko ezinbestekoa izango da aurreko bi pausuak osatzea (egonaldi amaierako ziurtagiriaren bidalketa eta inkesten betetzea).